


EUSKAL AEko ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI), 2013ko OTSAILA

Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,4 igo ziren 2013ko otsailean aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan ere (2013ko otsaila, 2012koarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuek %0,4ko gehikuntza izan dute.

2013ko otsailean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,4 gehitu zen aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %0,4 baita ere, EUSTATEN datuen arabera.



2013ko otsailean, aurreko hilaren aldean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,5 garestitu dira.

Otsailean Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek goranzko bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzaren atalean %0,3ko igoera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %1,0koa. Bi azpisektore hauen urte arteko bilakaeran Etxegintzako lehengaien kostuak %0,1 igo dira eta Obra Zibilekoenak %0,5.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean, Ez-metalezko industria (%4,0), Metalezko artikulak (%3,6), eta Petrolio-fintzea (%2,7) nabarmentzen dira. Aitzitik, urteko prezioetan (2013ko otsaila, 2012koaren aldean) murrizketak izan dituzte Metalurgiaren (%-4,3), Ez-metalezko mineralen erauzketaren (%-2,1) eta Makineriaren (%-0,8) lehengaiek.

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK. 2013KO OTSAILA(p)

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m / m-1	m / m-12	m / abendua
GUZTIRA	103,9	0,4	0,4	1,2
ERAIKINAK	103,1	0,3	0,3	1,0
OBRA ZIBILA	107,0	0,7	0,7	2,1
LEHENGAI A	104,1	0,5	0,2	1,3
ERAIKINAK	103,0	0,3	0,1	1,0
OBRA ZIBILA	108,3	1,0	0,5	2,5
LAN-ESKUA	103,7	0,0	1,1	1,1

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago.

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua.